




Cézanneren sagarrak eta Keynes



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Firle (Ekialdeko Sussex, Ingalaterra), 1918ko martxoaren 28a. John Maynard Keynes (1883-1946) ekonomialaria Charleston etxaldera, Bloomsbury arte eta literatura taldea bildu ohi zen etxera iritsi zen gauez, Paristik 24 orduko bidaia luze eta neketsua egin ondoren. “Errepidera jaisten bazarete, Cézanne bat topatuko duzue burdin hesiaren atzean” esan zien bertan bildutakoei. Bidaia erabat ahituta, ez zuen mihisea etxeraino eramateko indarrik izan eta zuhaixka baten azpian ezkutatu zuen.

XX. mendeko teoria makroekonomiko garrantzitsuenetakoa sortzaile izateaz gain, artezale amorratua eta Bloomsburyko kidea ere bazen Keynes, eta bi arloak uztartu zituen Parisen egin berri zen arte enkante arriskutsuan; Lehen Mundu Gerra betean, alemaniarrek Frantziako hiriburuaren atarian zeuden egun haietan.

1916tik Keynesek britainiar gobernuarentzat lan egiten zuen, Ogasun Ministerioari Altxor Publikoko sailean. Parisen urtebete lehenago hil zen Edgar Degas margolariaren bilduma enkantean salduko zela jakin zuen; Degasen beraren lanez gain, besteak beste, Manet, Ingres, Delacroix, Gauguin eta Cézanneren lanek osatzen zuten bilduma hura. Gobernutik 20.000 libra lortu eta enkantean, uste baino merkeago, egun milioi asko balio dituen 13 artelaneko sorta erostea lortu zuen. Eta, gainera, 5.000 libra sobera izan zituen. Batetik, alemaniarren mehatxuak enkantera oso erosle gutxi inguratzea



Paul Cézanneren *Pommes* (c. 1878), John Maynard Keynesek erosi zuen 1918an.

eragin zuen eta, bestetik, margolari horien lanek ez zeukaten oraindik gerora aitortuko zitzaizen balioa. Keynesek, hori aurreikusita, inbertsio biribila egin zuen britainiar gobernuarentzat eta, hala, bere teoriaren zati bat praktikara eramatea lortu zuen nolabait. Keynesek uste zuen krisialdi ekonomikoei aurre egiteko Estatua indartu eta, horretarako, baliabidez hornitu behar zela. Eta erosketa horren bidez, bere harri koskorra ekarri zion Estatuari; britainiar estatuari, jakina, frantziar estatuarentzat ez baitzen negozio batere errentagarria izan.

Bere poltsikotik ere koadro bat erosi zuen Keynesek, arestian aipatutako

Cézanneren sagarren bodegoia. 2013an Cézanneren beste sagar bodegoi bat 4 milioi dolarren truke saldu zen eta Keynesenak antzeko prezioa izan dezakeela uste da, bere eta inguruko mikroekonomia luzaroan konpontzeko nahikoa. Baina ekonomialariak ez zituen sagar horiek inbertsiontzat erabili.

Keynesek berak Bloomsbury taldearen helburua “esperientzia estetikoaren sorrera eta gozamina” zela esan zuen. Eta horixe egin zuen koadro horrekin, bide bazterretik erreskatatu ondoren: urte luzez bere oheburuan zintzilik izan zen, besterik gabe, esperientzia estetikoaz gozatzeko. ●



Cortések ez zuen dena suntsitu

1521eko abuztuan Hernán Cortés konkistatzaileak Tlatelolco hiri azteka hartu, arpilatu eta suntsitu zuen. Konkistaren ondoren, pixkanaka, aztekek hiriko hondakineta itzuli eta konkistatzaileek ezarritako arau eta muga zorrotzei egokituz joan ziren. Baina Mexikoko Antropologia eta Historiako Institutu Nazio-

nalak (INAH) egin duen azken kanpaina arkeologikoan, konkistaren ondorengo giza sakrifizioen frogak eta bestelako arrasto batzuk aurkitu dituzte. Guztiz debekatuta eta zigortua egon arren, aztekek beren erlijio eta usadio zaharrei eusteko ahalegina egin zuela erakusten du horrek. ●